

**GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK**

1

**DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA****GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA****OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA**

10/2025 Foru Dekretua, ekainaren 24koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzekoa.

Duela gutxi onetsita geratu da 1/2025 Foru Araua, maiatzaren 9koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistemaren erreforma eta beste zerga aldaketa batzuk onesten dituen. Arau horrek aldaketak sartu ditu Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistemaren zenbait figura tributariotan, eta, horien artean, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan.

Horrela, pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga horretan, besteak beste aldatu dira bai lan etekinak jasotzeagatik autoliquidatzeko obligazioaren erregulazioa eta bai lan etekin horien hobaria. Bi aldaketa horiek ezinbesteko egiten dute urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsita dagoen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua ahalik eta azkarren egokitzea lan etekinei aplikatu beharreko atxikipen portzentajeen taulari dagokionez, eta egokitzapen hori foru dekretu honen bidez egiten da, 2025eko uztailaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Gainera, eragin data horrekin ere, hobetu egiten da 100.3 artikuluko 1. erregela bereziaren bigarren paragrafoak duen idazketa, non ezartzen baita pentsioak edo hartzeko pasiboak jasotzen dituzten zergadunek posible dutela zenbatekoak urtebetera eramateko aukera ez aplikatzea erregela berezi horren lehen paragrafoan aukera hori aurreikusita egon arren, eta, aldi berean, egokitzen baita kontzeptu horiek jasotzen dituztenek aukera hori komunikatzeko eraren erregulazioa. Eragin data berberarekin, erregelamenduz garatzen da zein prozedura aplikatuko duen Zerga Administrazioak lan pertsonalaren gauzako ordainsariei buruzko aurretiazko balorazio akordioak ebatzi ditzan, pertsona edo entitate ordaintzaileek aurrez eskatuta, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kontura egin beharreko diru-sarrera zahaztearen ondorioetarako.

Aldaketa horiek foru dekretu honen artikuluko bakarreko bigarren ordinalean sartzen dira.

Bestalde, aipatutako maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Arauak beste gai ugari ere uzten ditu erregelamenduz garatzeko. Garapen horri ekite aldera, foru dekretu honen tramitazioa aprobetxatzen da aldaketa horietako batzuk 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin txertatzeko zergaren erregelamenduan.

Aurreko paragrafoan adierazitako ondorioak dituzten aldaketei dagokionez, zeinak foru dekretu honen lehen ordinalean txertatu baitira, lehen apartatuak 12 bis artikuluko berria sartzen du zergaren erregelamenduan. Artikulu horretan araututa geratzen da nola aplikatuko den foru arauak aurreikusten duen salbuespena 65 urtetik gorako zergadunek biziraupen prestazioengatik kapital moduan etekinak jasotzen dituztenean edo bizitza aseguruaren kontratuetatik datozen erreskateak egiten dituztenean, beren aldeko biziarteko errenta bat eratzeko erabiltzen badira.

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA**DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS**

Decreto Foral 10/2025, de 24 de junio, por el que se modifica el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Recientemente se ha aprobado la Norma Foral 1/2025, de 9 de mayo, por la que se aprueban la reforma del sistema tributario del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y otras modificaciones tributarias, que contiene modificaciones en diversas figuras impositivas del sistema tributario del Territorio Histórico de Gipuzkoa, entre ellas en el impuesto sobre la renta de las personas físicas.

En el referido impuesto sobre la renta de las personas físicas, entre otros aspectos, se han modificado la regulación de la obligación de autoliquidar con motivo de la percepción de rendimientos del trabajo y la bonificación de dichos rendimientos. Ambas modificaciones requieren una adaptación del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, aprobado por el Decreto Foral 33/2014, de 14 de octubre, en lo que respecta a la tabla de porcentajes de retención a aplicar sobre los rendimientos del trabajo con la mayor premura, adaptación que se efectúa a través del presente decreto foral con efectos a partir del 1 de julio de 2025.

Además, con la referida fecha de efecto se mejora la redacción del segundo párrafo de la regla especial 1.ª del artículo 100.3, que incluye la posibilidad de que los contribuyentes que perciban pensiones o haberes pasivos puedan optar por no aplicar la elevación prevista en el párrafo primero de la misma regla especial, adecuando al mismo tiempo la regulación relativa a la comunicación de dicha opción por parte de las personas perceptoras interesadas; y se regula el desarrollo reglamentario del procedimiento para que la Administración tributaria pueda resolver, a solicitud de las personas o entidades pagadoras, acuerdos previos de valoración respecto de las retribuciones en especie del trabajo personal, a efectos de determinar el correspondiente ingreso a cuenta del impuesto sobre la renta de las personas físicas.

Dichas modificaciones se incluyen en el ordinal segundo del artículo único de presente decreto foral.

Por otra parte, la referida Norma Foral 1/2025, de 9 de mayo, remite otras muchas cuestiones a desarrollo reglamentario. A fin de iniciar dicho desarrollo, se aprovecha la tramitación de este decreto foral para incorporar algunas de esas otras modificaciones en el reglamento del impuesto, con efectos a partir del 1 de enero de 2025.

Con respecto a las modificaciones con los efectos indicados en el párrafo anterior, incluidas en el ordinal primero del presente decreto foral, el apartado uno introduce un nuevo artículo 12 bis en el reglamento del impuesto que completa la regulación prevista en la norma foral para la exención en rendimientos derivados de las prestaciones por supervivencia en forma de capital o rescates derivados de contratos de seguros de vida por contribuyentes mayores de 65 años que constituyan renta vitalicia asegurada a su favor.

Bigarren apartatuan, berrikuntza gisa eta zergaren foru arauaren 28. artikuluko 2. apartatuan emandako gaikuntzaz baliatuta, 33 bis artikulua gehitzen da eta horren bidez erregela bereziak ezartzen dira jarduera artistikoen etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren modalitate sinplifikatuan kalkulatzeko, eta horrekin garatuta uzten dira artistaren estatutuan ezarritako oinarriak.

Era berean, gorago adierazitako lehen apartatuaren bidez sartu den 12 bis artikuluan araututakoaren ildotik, hirugarren apartatuak 45 bis artikulua berria gehitzen du. Artikulu horretan ezartzen da zer baldintza gehigarri bete behar diren 65 urtetik gorako zergadunek ondare elementuen eskualdaketan lortzen dituzten ondare irabaziak salbuetsita gera daitezzen eskualdaketan lortutako zenbateko osoa beren alde aseguratutako biziarteko errenta bat eratzeko erabiltzen denean. Orobat, bertan arautzen da zer ondorio izango diren berrinbertsio partziala egiten denean, 240.000 euroko muga gainditzen denean edo ezarritako baldintzak betetzen ez direnean.

Laugarren eta bosgarren apartatuek eguneratu egiten dituzte zenbait artikuluk araudira egiten dituzten igorpenak, maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Arauak bi apartatutan banatzen baitu zergaren foru arauaren 42. artikulua edukia.

Horrez gain, seigarren apartatuak hamahirugarren xedapen gehigarria aldatzen du, biziarteko errenta aseguratuen kontratuen gainean aplikatu daitezkeen berreskuratzeko mekanismoak, prestazioaldi jakinak edo kontraaseguruko formulak arautzen duena.

Sartzen den xedapen gehigarri berri bat dela medio (hamalagarrena), garatzen dira lan pertsonalaren gauzen bidezko ordainsariei dagokienez zergaren foru arauaren 107. artikuluko 4. apartatuan aurreikusten diren aurretiazko balorazio akordioak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kontura egin beharreko diru-sarrera zehazteari begira eskatu daitezkeenak.

Azkenik, foru dekretu hau osatzeko, bi xedapen jasotzen dira bukaeran: xedapen iragankor bat, jarduera artistikoen kasuan zuzeneko zenbatespenaren modalitate sinplifikatua 2025eko zergaldirako aukeratzeko eta aukera horretan atzera egiteko epe berezi bat ezartzen duena, eta azken xedapen bakarra, dekretua noiz jarriko den indarrean eta zer ondorio izango dituen arautzen duena.

Horrenbestez, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, Lege Aholkularitzako Batzordearekin bat etorritik, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Aldatzea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua, urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsia.

Lehenengoa. 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, aldaketa hauek sartzen dira urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduan:

Bat. 12 bis artikulua berria gehitzen da, eduki honekin:

«12 bis artikulua. 65 urtetik gorako zergadunek biziraupen prestazioengatik kapital moduan jasotako etekinak edo bizitza aseguruaren kontratuetatik eratorritako erreskateak salbuestea, beren alde aseguratutako biziarteko errenta bat eratzeko bideratzen badira.

1. Zergaren foru arauaren 9. artikuluko 38. zenbakian xedatutakoaren ondorioetarako, 65 urtetik gorako zergadunek biziraupen prestazioengatik kapital moduan lortzen dituzten etekinak edo bizitza aseguruaren kontratuetatik egiten dituzten erreskateak salbuetsita geratuko dira, artikulua honetan ezarritako baldintzetan, betiere baldin eta lortutako zenbateko osoa beren alde aseguratutako biziarteko errenta bat eratzeko erabiltzen badute.

En el apartado dos, de forma novedosa y con base en la habilitación prevista en el apartado 2 del artículo 28 de la norma foral del impuesto, se adiciona el art. 33 bis que establece reglas especiales para la determinación del rendimiento neto mediante la modalidad simplificada del método de estimación directa aplicable para las actividades artísticas, en desarrollo de las bases establecidas en el estatuto del artista.

De igual manera, en línea con lo regulado en el artículo 12 bis, introducido por el apartado uno indicado más arriba, el apartado tres adiciona un nuevo artículo 45 bis donde se establecen los requisitos adicionales que deben cumplirse para la aplicación de la exención en las ganancias patrimoniales derivadas de la transmisión de elementos patrimoniales por contribuyentes mayores de 65 años, cuando el importe de la transmisión se destine a constituir una renta vitalicia asegurada a su favor, así como las consecuencias en caso de reinversión parcial, o por superar el límite de 240.000 euros o incumplimiento de las condiciones establecidas.

Los apartados cuatro y cinco actualizan las remisiones normativas que realizan varios artículos, dado que la Norma Foral 1/2025, de 9 de mayo, divide el contenido del artículo 42 de la norma foral del impuesto en dos apartados.

Además, en el apartado seis se modifica la disposición adicional decimotercera donde se regulan los mecanismos de reversión, períodos ciertos de prestación o fórmulas de contraseguro sobre contratos de rentas vitalicias aseguradas.

Se introduce una nueva disposición adicional, la decimocuarta, para desarrollar los acuerdos previos de valoración de las retribuciones en especie del trabajo personal a efectos de la determinación del correspondiente ingreso a cuenta del impuesto sobre la renta de las personas físicas, previstos en el apartado 4 del artículo 107 de la norma foral del impuesto.

Finalmente, este decreto foral se completa con una disposición transitoria única donde se establece un plazo excepcional de ejercicio de la opción por la modalidad simplificada del método de estimación directa, y de revocación de la opción, para el período impositivo 2025, aplicables a las actividades artísticas y una disposición final única que regula su entrada en vigor y los efectos.

En su virtud, a propuesta de la diputada foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno Foral en sesión del día de la fecha,

DISPONGO

Artículo único. Modificación del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, aprobado por el Decreto Foral 33/2014, de 14 de octubre.

Primero. Con efectos a partir de 1 de enero de 2025 se introducen las siguientes modificaciones en el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, aprobado por el Decreto Foral 33/2014, de 14 de octubre:

Uno. Se introduce un nuevo artículo 12 bis con el siguiente contenido:

«Artículo 12 bis. Exención en rendimientos derivados de las prestaciones por supervivencia en forma de capital o rescates derivados de contratos de seguros de vida por contribuyentes mayores de 65 años que constituyan renta vitalicia asegurada a su favor.

1. A efectos de lo dispuesto en el número 38 del artículo 9 de la norma foral del impuesto, quedarán exentos los rendimientos derivados de las prestaciones por supervivencia en forma de capital o rescates derivados de contratos de seguros de vida, obtenidos por contribuyentes mayores de 65 años, siempre que el importe total obtenido se destine a constituir una renta vitalicia asegurada a su favor, en las condiciones que se establecen en este artículo.

2. Biziarteko errenta sei hilabeteko epean eratu beharko da, aurreko paragrafoan aipatutako etekina lortu denetik hasita.

Dena den, kapital higigarriaren etekinari atxikipena aplikatu behar bazaio eta eskualdaketa balio osoa, atxikipenaren zenbatekoan gutxitua, osorik erabiltzen bada sei hilabeteko epe horretan biziarteko errenta bat eratzeko, atxikipenaren zenbatekoa biziarteko errentaren eraketara bideratzeko epea etekina lortzen den ekitaldia amaitu eta hurrengo ekitaldia bukatu arte luzatuko da.

3. Salbuespena aplikatzeko, baldintza hauek ere bete beharko dira:

a) Biziarteko errentaren kontratua zergadunaren (onuraduna izango denaren) eta aseguru entitate baten artean sinatu beharko da.

Kontratu horietan berreskuratze mekanismoak, prestazioaldi jakinak edo kontraaseguruko formulak ezarri ahal izango dira, behin biziarteko errenta eraturik aseguru-duna hiltzen den kasuetarako.

b) Biziarteko errentak, gehienez, urtebeteko maiztasuna izango du; hura eratu eta urtebetean hasi beharko da jasotzen, eta errenten urteko zenbatekoa ezingo da ehuneko bost baino gehiago murriztu aurreko urtearekin alderatuta.

c) Zergadunak aseguru entitateari adierazi behar dio kontratatutako biziarteko errentaren zenbatekoa biziraupen prestazioengatik kapital moduan jaso diren etekinen edo bizitza aseguruaren kontratuetatik egindako erreskateen berrinbertsioa dela, artikuluko honetan jasotako salbuespena aplikatzearen ondorioetarako.

4. Biziarteko errenten eraketan berrinbertitzeagatik salbuespena aplikatzeko eskubidea emango duen zenbateko osoa 240.000 eurokoa izango da gehienez. Zergadunak artikuluko honetan aurreikusitako salbuespena eta zergaren foru arauaren 42.1.f) artikuluan aurreikusitakoa aplikatzen baditu, muga hori batera aplikatuko da.

Berrinbertitutako zenbatekoa txikiagoa bada lortutako zenbateko osoa baino, berrinbertitutako kopuruari etekinean dagoen zati proportzionala bakarrik utziko da zergapetu gabe.

Etekinaren zenbatekoa biziarteko errenta batean berrinbertitzean 240.000 euroko zenbatekoa gainditzen bada (lehendik egindako berrinbertsioak kontuan hartuta), berrinbertsioetatik hartuko da, soil-soilik, 240.000 euroren eta aurreko berrinbertsioen zenbatekoaren arteko aldea.

Artikuluko honetan xedatutakoaren arabera, berrinbertsioa ez bada egiten etekina lortu den urte berean, zergadunaren obligazioa da etekina lortu den ekitaldiko zergaren aitortpenean adieraztea etekin hori lehen esandako baldintza eta epeetan berrinbertitzeko asmoa duela.

5. Artikuluko honetan ezarritako baldintzetako edozein ez betetzeak, edo eraturik biziarteko errentatik ondorioztatzen diren eskubide ekonomikoak osorik edo partez aurreratzeak dagozkion etekina zergapetzea ekarriko du berekin.

Kasu horretan, zergaduna behartuta egongo da salbuetsi gabeko etekina hura lortu den urteari egoztera, berandutze interesak barruan sartuta. Baldintza betetzen ez den egunaren eta ez-betetzea gertatu den zergaldiari dagozkion autolikidazioa aurkezteko arauzko epea amaitu bitartean egin beharko du hori.»

Bi. 33 bis artikulua gehitzen da, eduki honekin:

«33 bis artikulua. Jarduera artistikoen etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren modalitate sinplifikatuan zehazteko aplikatutakoak diren erregelak bereziak.

Zergaren foru arauak 28. artikuluko 2. apartatuan xedatutakoa garatze aldera, jarduera artistikoen etekin garbia zuzeneko

2. La renta vitalicia deberá constituirse en el plazo de seis meses desde la fecha de obtención del rendimiento a que se refiere el párrafo anterior.

No obstante, cuando el rendimiento de capital mobiliario esté sometido a retención y la cantidad que corresponda minorada en el importe de la retención se destine íntegramente a constituir una renta vitalicia en el citado plazo de seis meses, el plazo para destinar el importe de la retención a la constitución de la renta vitalicia se ampliará hasta la finalización del ejercicio siguiente a aquel en el que se obtenga el rendimiento.

3. Para la aplicación de la exención se deberán cumplir además los siguientes requisitos:

a) El contrato de renta vitalicia deberá suscribirse entre la persona contribuyente, que tendrá la condición de beneficiaria, y una entidad aseguradora.

En dichos contratos podrán establecerse mecanismos de reversión o períodos ciertos de prestación o fórmulas de contraseguro en caso de fallecimiento una vez constituida la renta vitalicia.

b) La renta vitalicia deberá tener una periodicidad inferior o igual al año, comenzar a percibirse en el plazo de un año desde su constitución, y el importe anual de las rentas no podrá decrecer en más de un cinco por ciento respecto del año anterior.

c) La persona contribuyente deberá comunicar a la entidad aseguradora que la renta vitalicia que se contrata constituye la reinversión del importe correspondiente a rendimientos derivados de las prestaciones por supervivencia en forma de capital o rescates derivados de contratos de seguros de vida, a efectos de la aplicación de la exención prevista en este artículo.

4. La cantidad máxima total cuya reinversión en la constitución de rentas vitalicias dará derecho a aplicar la exención será de 240.000 euros. Este límite se aplicará de forma conjunta en el caso de que el o la contribuyente aplique la exención prevista en este artículo y la prevista en el artículo 42.1.f) de la norma foral del impuesto.

Cuando el importe reinvertido sea inferior al total obtenido, únicamente se excluirá de tributación la parte proporcional del rendimiento obtenido que corresponda a la cantidad reinvertida.

Si como consecuencia de la reinversión en una renta vitalicia del importe correspondiente al rendimiento se superase, considerando las reinversiones anteriores, la cantidad de 240.000 euros, únicamente se considerará reinvertido el importe de la diferencia entre 240.000 euros y el importe de las reinversiones anteriores.

Cuando, conforme a lo dispuesto en este artículo, la reinversión no se realice en el mismo año de obtención del rendimiento, la persona contribuyente vendrá obligada a hacer constar en la autoliquidación del impuesto del ejercicio en el que se obtenga el rendimiento su intención de reinvertir en las condiciones y plazos señalados.

5. El incumplimiento de cualquiera de las condiciones establecidas en este artículo, o la anticipación, total o parcial, de los derechos económicos derivados de la renta vitalicia constituida, determinará el sometimiento a gravamen del rendimiento correspondiente.

En tal caso, la persona contribuyente imputará el rendimiento no exento al año de su obtención, con inclusión de los intereses de demora, en el plazo que medie entre la fecha en que se produzca el incumplimiento y la finalización del plazo reglamentario de presentación de la autoliquidación correspondiente al período impositivo en que se produzca dicho incumplimiento.»

Dos. Se adiciona un artículo 33 bis con el siguiente contenido:

«Artículo 33 bis. Reglas especiales para la determinación del rendimiento neto en la modalidad simplificada del método de estimación directa aplicables a las actividades artísticas.

En desarrollo de lo dispuesto en el apartado 2 del artículo 28 de la norma foral del impuesto, la determinación del rendimiento

zenbatespenaren modalitate sinplifikatuan kalkulatzeko, erregela berezi hauek aplikatuko dira:

a) Jarduera artistikotzat hartzen dira:

a') Sorkuntza plastikoa eta bisuala (pintura, marrazketa, eskultura, ilustrazioa, zeramika, grabatua, komisariotza, artelanen zaharberritzea edo ikus-entzunezkoen fikzio, animazio, dokumentalen edo hibridoen sorkuntza zuzendaritzak); idazketa bidezko sorkuntza (literarioa, ikus-entzunezkoen edo komikien gidoigintza, antzerkirako testuak, konposizioa eta letra edo horien itzulpena); eta zuzeneko arteen sorkuntza (koreografiko edo performatiboa, interpretazio musikala, bertsolaritza, kantua, dantza, arte akrobatikoak edo zirku arlokoak, txotxongiloak, magia, umorea, figurazioa edo bariatateak, eta ikuskizunen zuzendaritza artistikoak). Barruan sartzen dira, halaber, bestelako sorkuntza kultural eta jarduera artistikoak ere, baldin eta haien garapenean diharduena artista interpretatzaile edo exekutatzaile gisa aitortuta badago Jabetza Intelektualari buruzko Legearen testu bategineko bigarren liburuaren I. tituluan (Jabetza Intelektualari buruzko Legearen testu bategina apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuak onetsi zuen, gaiari buruzko lege xedapenak erregulartzeko, argitu eta harmonizatzen dituenak), edo artista, artista interpretatzaile edo exekutatzaile gisa aste eszenikoan, ikus-entzunezkoen eta musikalen hitzarmen kolektiboetan.

b') Jarduera artistiko hori garatzeko beharrezkoak diren jarduera tekniko lagungarriak, jarduera artistikoarekin zuzenean lotutako zerbitzuetan gauzatuak, haien exekuziorako ezinbestekoak direnean, hala nola ekitaldia prestatzea, muntatzea eta laguntza teknikoa ematea, edo hura osorik gauzatzeko beharrezko den beste edozein lan egitea (joskintza, ile-apainketa eta makillajea, besteak beste), eta osagarritzat hartzen diren beste jarduera batzuk, betiere baldin eta zergadunak zuzenean eta esparru artistikoan bakarrik egiten baditu jarduera horiek.

b) Aurreko letran deskribatutako jarduera artistiko, tekniko eta osagarriak gauzatzeko, komunikazio publiko bat edo edozein bitarteko edo euskarri tekniko, ukigarri edo ukiezin, ekoizpen fonografiko edo ikus-entzunezko erabili ahal izango da, hala nola antzerkia, zinema, irrati-difusioa, telebista, Internet (streaming bidezko hedapena barne), kirol instalazioak, plazak, zirkuak, jaialdiak, tabloak, dantzalekuak, diskotekak, eta, oro har, normalean zein ezohiko eran ikuskizun publikoetara, grabazioetara, ekoizpen edo emanaldi artistiko zein erakusketa saioetara, eta esparru pribatuko saio artistikoetara bideratutako beste edozein leku.

Kanpoan geratuko dira beti X kalifikazioa jasotzen duten sorkuntzen gaineko jarduerak, pertsonen askatasunaren eta eskubideen aurkakoak direnak edo nahita diskriminatzen dutenak.

c) Sarrerak eta gastuak kalifikatu eta kuantifikatzeko, kanpoan utzita, betiere, narriaduragatik izandako galerak, amortizazioak, zergaren foru arauaren 27. artikuluko 5. erregelaren bigarren apartatuko a) letran aipatzen diren errentamendu, lagapen edo balio-galera gastuak, eta jarduerari atxikitako ondare elementuetatik eratorritako irabaziak eta galerak, Sozietateen gaineko zergaren foru arauan izaera orokorrez ezarrita dauden arauak aplikatuko dira.

d) Aurreko letran aipatu diren sarrera eta gastuen arteko diferentzia kalkulatu da, eta ateratzen den emaitzari 100eko 40 gutxituko zaio amortizazioengatik, narriadurak eragindako galerengatik, foru arau honen 27. artikuluko 5. erregelaren bigarren apartatuko a) letran aipatzen diren errentamendu, lagapen edo balio-galera gastuengatik, eta gastu frogagaitzengatik.

e) Azkenik, jarduerari atxikitako ondare elementuetatik eratorritako irabazi eta galerak gehitu edo kendu behar dira, dagokionaren arabera, zergaren foru arauak 25.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz, eta horren emaitza jardueraren etekin garbia izango da.»

neto mediante la modalidad simplificada del método de estimación directa para las actividades artísticas se llevará a cabo con arreglo a las reglas especiales que se relacionan a continuación:

a) Se consideran actividades artísticas:

a') La creación plástica y visual (pintura, dibujo, escultura, ilustración, cerámica, grabado, comisariado, restauración de obras de arte o las diferentes direcciones creativas del audiovisual en ficción, animación, documental o sus híbridos); creación mediante la escritura (literaria, guion audiovisual o de cómic, textos teatrales, composición y letra o la traducción de las mismas); creación de artes en vivo (coreográfica o performativa, interpretación musical, bertsolaritza, canto, baile, artes acrobáticas o circenses, marionetas, magia, humor, figuración o variedades, y las direcciones artísticas de los espectáculos) así como otras creaciones culturales y aquellas actividades artísticas, que desarrollen y sea reconocida como artista intérprete o ejecutante en el título I del libro segundo del texto refundido de la Ley de Propiedad Intelectual, aprobado por el Real Decreto Legislativo 1/1996, de 12 de abril, por el que se ha regularizado, aclarado y armonizado las disposiciones legales vigentes sobre la materia, o como artista, artista intérprete o ejecutante por los convenios colectivos que sean de aplicación en las artes escénicas, la actividad audiovisual y la musical.

b') Las actividades técnicas de apoyo necesarias para el desarrollo de dicha actividad artística materializadas en servicios vinculados directamente a la actividad artística y que resulten imprescindibles para su ejecución, tales como la preparación, montaje y asistencia técnica del evento, o cualquier trabajo necesario para la completa ejecución de aquella (sastrearía, peluquería y maquillaje, entre otras) y otras actividades entendidas como auxiliares, siempre que el contribuyente realice estas actividades directas y exclusivamente en el ámbito artístico.

b) La ejecución de las actividades artísticas, técnicas y auxiliares en los términos descritos en la letra anterior podrá realizarse mediante comunicación pública o difusión a través de cualquier medio o soporte técnico, tangible o intangible, producción fonográfica o audiovisual, en medios tales como teatro, cine, radiodifusión, televisión, internet, incluida la difusión mediante streaming, instalaciones deportivas, plazas, circo, festivales, tablaos, salas de fiestas, discotecas, y, en general, cualquier lugar destinado habitual o accidentalmente a espectáculos públicos, o a grabaciones, producciones o actuaciones de tipo artístico o de exhibición, así como las actuaciones artísticas en un ámbito privado.

En ningún caso se incluirán actividades sobre creaciones que sean calificadas como X, o atenten a la libertad y derechos de las personas, o posean un carácter discriminatorio intencional.

c) Se calificarán y cuantificarán los ingresos y los gastos, a excepción de las pérdidas por deterioro, las amortizaciones, las cantidades en concepto de gasto de arrendamiento, cesión o depreciación a que se refieren la letra a) del apartado dos de la regla 5.ª del artículo 27 de la norma foral del impuesto, y de las ganancias y pérdidas derivadas de los elementos patrimoniales afectos a la actividad, aplicando las reglas establecidas con carácter general en la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades.

d) Se calculará la diferencia entre los ingresos y los gastos mencionados en la letra anterior y la cantidad resultante se minorará en un 40 por 100, en concepto de amortizaciones, pérdidas por deterioro, gastos de arrendamiento, cesión o depreciación a los que se refiere la letra a) del apartado dos de la regla 5.ª del artículo 27 de la norma foral del impuesto, y gastos de difícil justificación.

e) Finalmente, se sumarán o restarán, según proceda, las ganancias y pérdidas derivadas de los elementos patrimoniales afectos a la actividad, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 25.3 de la norma foral del impuesto, resultando el rendimiento neto de la actividad.»

Hiru. 45 bis artikulua berria gehitzen da, eduki honekin:

«45 bis artikulua. 65 urtetik gorako zergadunek ondare elementuen eskualdaketa lortutako etekinak salbuestea, beren alde aseguratutako biziarteko errenta bat eratzeko erabiltzen bada.

1. Zergaren foru arauaren 42.1 artikuluko f) letran aurreikusitakoaren ondorioetarako, 65 urtetik gorako zergadunek ondare elementuak eskualdatzeagatik agerian jartzen diren ondare irabaziak salbuesita egongo dira artikulua honetan ezartzen diren baldintzetan, betiere baldin eta eskualdaketa lortutako zenbateko osoa beren alde aseguratutako biziarteko errenta bat eratzeko erabiltzen bada.

2. Biziarteko errenta sei hilabeteko epean eratu beharko da, ondare elementua eskualdatzen den egunetik zenbatzen hasita.

Dena den, ondare irabaziari atxikipena aplikatu behar bazaio eta eskualdaketa balioa, atxikipenaren zenbatekoan gutxitua, osorik erabiltzen bada sei hilabeteko epe horretan biziarteko errenta bat eratzeko, atxikipenaren zenbatekoa biziarteko errentaren eraketara bideratzeko epea eskualdaketa egiten den ekitaldia amaitu eta hurrengo ekitaldia bukatu arte luzatuko da.

3. Salbuespena aplikatzeko, baldintza hauek ere bete beharko dira:

a) Biziarteko errentaren kontratua zergadunaren (onuraduna izango denaren) eta aseguru entitate baten artean sinatu beharko da.

Kontratu horietan berreskuratze mekanismoak, prestazioaldi jakinak edo kontraaseguruko formulak ezarri ahal izango dira, behin biziarteko errenta eratuta aseguruaduna hiltzen den kasuetarako.

b) Biziarteko errentak, gehienez, urtebeteko maiztasuna izango du; hura eratu eta urtebetean hasi beharko da jasotzen, eta errenten urteko zenbatekoa ezingo da ehuneko bost baino gehiago murriztu aurreko urtearekin alderatuta.

c) Zergadunak aseguru entitateari adierazi behar dio kontratatzen den biziarteko errenta ondare elementuen eskualdaketa lortutako zenbatekoaren berrinbertsioa dela, artikulua honetan aurreikusitako salbuespena aplikatzearen ondorioetarako.

4. Biziarteko errenten eraketan berrinbertitzeagatik salbuespena aplikatzeko eskubidea emango duen zenbateko osoa 240.000 eurokoa izango da gehienez. Zergadunak artikulua honetan aurreikusitako salbuespena eta zergaren foru arauaren 9.38 artikuluan aurreikusitakoa aplikatzen baditu, muga hori batera aplikatuko da.

Berrinbertitutako zenbatekoa txikiagoa bada eskualdaketa lortutako zenbateko osoa baino, berrinbertitutako kopuruari ondare irabazian dagokion zati proportzionala bakarrik utziko da zergapetu gabe.

Eskualdaketa zenbatekoa biziarteko errenta batean berrinbertitzean 240.000 euroko zenbatekoa gainditzen bada (lehendik egindako berrinbertsioak kontuan hartuta), berrinbertisotzat hartuko da, soil-soilik, 240.000 euroren eta aurreko berrinbertsioen zenbatekoaren arteko aldea.

Artikulua honetan xedatutakoaren arabera, berrinbertsioa ez bada egiten eskualdaketa urte berean, zergadunaren obligazioa da ondare irabazia lortu duen ekitaldiko zergaren aitortzean adieraztea ondare irabazi hori lehen esandako baldintza eta epeetan berrinbertitzeko asmoa duela.

